



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



PRENTSA-OHARRA

# Abuztuko eguzki-eklipsearen atzean dagoen zientzia esploratzeko hitzaldiak eta tailerrak

*“Eguzki-eklipse osoa. Behaketa, esplorazioa eta zientzia” jardunaldiak tailer eta hitzaldi laburrak eskainiko ditu, ikuskizun astronomiko honen gako zientifikoak ezagutzeko eta behaketa segurua sustatzeko.*

*Ekitaldia datorren maiatzaren 11n izango da Bilboko Bizkaia Aretoa-EHUn eta EHuko Kultura Zientifikoko Katedrak, Europako Espazio Agentziak - ESA eta EHuko Zientzia Planetarioen Taldeak antolatu dute.*

**Bilbon, 2026ko maiatzaren 8an.** Abuztuaren 12an aukera paregabea izango dugu gertakari astronomiko zoragarri bat bizitzeko: eguzki-eklipse osoa. Fenomeno honen atzean dagoen zientzia esploratzeko asmoz, [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#), [Europako Espazio Agentziak](#) (ESA) eta [EHUko Zientzia Planetarioen Taldeak](#) “Eguzki-eklipse osoa. Behaketa, esplorazioa eta zientzia” jardunaldia antolatu dute, datorren astelehenean, maiatzaren 11n, Bizkaia Aretoa-EHUn. Ekimenaren helburua astrofisika herritarrei hurbiltzea izango da, modu atsegin eta zehatzean.

Jardunaldiak **jarduera-programa zabala eskainiko du, lau tailer** -hiru, goizez, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat eta beste bat, arratsaldean, publiko orokorarentzako- eta astrofisikako profesionalek emandako **hiru hitzaldi labur eta ondorengo solasaldia**. Gainera, eklipsea modu seguruan behatzea bermatzen duten **homologatutako betaurrekoak** banatuko dira parte-hartzaileen artean. \*Oharra: tailer guztiak beteta daude\*.

## Antolatutako jarduerak

Goizean zehar, Bigarren Hezkuntzako 300 ikasle inguruk tailer teoriko-praktikoetan hartuko dute parte, eguzki-eklipsearen atzean dagoen zientzia bertatik bertara ezagutzeko. Besteak beste, nola gertatzen diren eta zergatik ez diren hain ohikoak ikasiko dute, eta eklipsea segurtasunez behatu ahal izateko kamera ilun bat egingo dute. Era berean, eguraldiak laguntzen badu, eguzki-behaketak ere egingo dira.



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



Goizez zein arratsalde, 360 graduako planetario digital bat instalatuko da, ikusleari espazioaren esperientzian murgiltzeko aukera eskainiko diona. Parte-hartzaileek kosmosaren hainbat alderdi deskubritu ahal izango dituzte, hala nola Lurraren mugimenduak, zeruaren itxura urtaro bakoitzean, edo Eguzkiaren, Ilargiaren eta Lurraren lerrokatzea, eguzki-eklipse baten sorrera dakarrena.

## Hitzaldi kosmikoak

Jarraitzeko, 15 minutu inguruko hiru hitzaldi labur izango dira Bizkaia Aretoa-EHUko Mitxelena auditorioan, publiko orokorrari zabalik, astronomiarekin lotutako hainbat gai jorratzeko. Hitzaldiak **Pedro García-Lario** (Europako Espazio Agentzia - ESA), **Teresa del Río** (Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU) eta **Peio Iñurrigarro** (Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU) astrofisikariek eskainiko dituzte.

Lehen hitzaldian, **Pedro García-Lario** (ESA) eguzki-eklipseaz kalterik gabe gozatzeko zuzeneko eta zeharkako behaketa modo seguruenak aztertuko ditu. Ondoren, **Teresa del Río** (EHU) eklipse osoek Eguzkiari buruz zer argitzen duten azalduko du; zehazki, Eguzkiaren atmosferari buruz, ikusgai egongo baita fenomenoak irauten duen bitartean.

Bestalde, **Peio Iñurrigarro** (EHU) beste fenomeno astronomiko batekin lotuko ditu eklipseak, planeten iragatearekin, alegia, zeruko gorputz bat tamaina handiagoko beste baten eta behatzailearen artean igarotzearekin. Gaur egun, metodo hori tresna nagusietako bat bihurtu da eguzki-sistemaz kanpoko planetak bilatzeko.

Amaitzeko, 20 minutuko solasaldia izango da hizlarien eta bertaratutakoen artean. **Naiara Barradok**, EHUko Zientzia Planetarioen Taldeko ikertzaileak, eta **Iker Badiolak**, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrako zuzendariak aurkeztuko dute.

## Hitzaldietarako sarbidea

Hitzaldien sarrera librea eta doakoa da lekua bete arte. Bertaratzerik ez dutenek hitzaldi guztiak zuzenean eta streaming bidez ikusteko aukera izango dute EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren [YouTube](#) kanalean. Hitzaldiei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu jardunaldiaren [egitaraua](#).



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



→ THE EUROPEAN SPACE AGENCY



NOTA DE PRENSA

# Conferencias y talleres para explorar la ciencia detrás del eclipse solar de agosto

*La jornada "Eclipse solar total. Observación, exploración y ciencia" ofrecerá talleres y conferencias breves para conocer las claves científicas de este espectáculo astronómico y promover su observación segura*

*El evento tendrá lugar el próximo 11 de mayo en el Bizkaia Aretoa-EHU de Bilbao y está organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, la Agencia Espacial Europea (ESA) y el Grupo de Ciencias Planetarias de la EHU*

**Bilbao, 8 de mayo de 2026.** El próximo 12 de agosto tendrá lugar un acontecimiento astronómico excepcional: el primer eclipse solar total visible en Euskadi desde hace más de un siglo. Para explorar la ciencia detrás de este fenómeno, la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), la [Agencia Espacial Europea \(ESA\)](#) y el [Grupo de Ciencias Planetarias de la EHU](#) han organizado la jornada "Eclipse solar total. Observación, exploración y ciencia", que se celebrará el próximo **lunes 11 de mayo en el Bizkaia Aretoa - EHU**. Esta iniciativa tratará de acercar la astrofísica a la ciudadanía en un formato ameno y riguroso.

La jornada contará con un amplio **programa de actividades** que incluye cuatro talleres -tres dirigidos a estudiantes de secundaria y uno al público general-, así como tres conferencias cortas impartidas por profesionales de la astrofísica. Además, para garantizar una observación segura del eclipse, se repartirán **gafas homologadas** entre quienes participen. \*Nota: todos los talleres están completos\*.

## Actividades programadas

Durante la mañana alrededor de 300 estudiantes de secundaria participarán en talleres teórico-prácticos donde podrán conocer de primera mano la ciencia que hay detrás de los eclipses solares. Entre otras cuestiones sobre el eclipse, aprenderán cómo se producen, por qué motivo son tan poco frecuentes y cómo observarlos con seguridad mediante la construcción de una cámara oscura para su observación indirecta. Asimismo, si las condiciones meteorológicas lo permiten, se realizarán observaciones solares.

Tanto por la mañana como por la tarde, se instalará un planetario digital 360° que permitirá al público sumergirse en una experiencia inmersiva del espacio. Quienes participen en el taller



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica



podrán descubrir distintos aspectos del cosmos: desde los movimientos de la Tierra, pasando por el aspecto del cielo en cada época del año, hasta la alineación del Sol, la Luna y el planeta Tierra que da lugar a la formación de un eclipse solar.

## Conferencias cósmicas

La jornada continuará con tres conferencias breves de 15 minutos en las que se tratarán diferentes cuestiones relacionadas con la astronomía. Las charlas, abiertas al público, tendrán lugar en el auditorio Mitxelena del Bizkaia Aretoa - EHU y correrán a cargo de los astrofísicos **Pedro García-Lario** (Agencia Espacial Europea - ESA), **Teresa del Río** (Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU) y **Peio Iñurrigarro** (Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU).

Durante la primera conferencia, **Pedro García-Lario** (ESA) abordará los métodos de observación directa e indirecta más seguros para disfrutar del eclipse solar sin dañar la vista. A continuación, **Teresa del Río** (EHU) explicará lo que los eclipses totales revelan del Sol, en concreto, su atmósfera, que permanece visible durante el fenómeno.

Por su parte, **Peio Iñurrigarro** (EHU) relacionará los eclipses con otro fenómeno astronómico, el tránsito planetario, que consiste en el paso de un cuerpo celeste entre otro de mayor tamaño y el observador. En la actualidad, este método se ha convertido en una de las principales herramientas en la búsqueda de planetas extrasolares.

Para finalizar, se realizará un coloquio de 20 minutos entre conferenciantes y público, moderado por **Naiara Barrado**, investigadora del Grupo de Ciencias Planetarias de la EHU e **Iker Badiola**, director de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU.

## Acceso a las conferencias

Las conferencias de la tarde son de acceso libre hasta completar aforo. Quienes no puedan acudir de manera presencial, podrán seguirlas en directo vía *streaming* a través del canal de [YouTube](#) de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU. Para más información sobre las charlas y conferenciantes, consulta el [programa](#) de la jornada.